AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4249

402/2012 EBAZPENA, uztailaren 24koa, Bizkaiko Uribeko Eskualdeko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Uribeko Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak esleitzen zaizkio Javier Marco de Juana jaunari.

Uribeko Eskualdeko zuzendari gerentearen apirilaren 23ko 375/2012 Ebazpenaren bidez, Uribeko Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren lanpostua betetzeko deialdia argitaratzea onartu zen.

Aurkeztutako eskabidea, eta, halaber, alegatutako merituak egiaztatzeko agiriak azterturik, eta indarrean dagoen legeriaren arabera Zuzendaritza-Gerentzia honek dituen eskumenez baliatuaz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Javier Marco de Juana jaunari Uribe Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak esleitzea Bizkaiko Osasun Barrutian.

Bigarrena.– Javier Marco de Juana jaunak kudeaketa eta asistentzia funtzioak beteko ditu, biak batera Uribeko Eskualdeko Algorta/Bidezabaleko osasun-zentroan, Osasun Eskualdeko gerentearen mendean zuzenean eta hierarkikoki. Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren eginkizunak betetzen dituen bitartean nahiz eginkizun horiek amaitzean bere kategoriako plazaren jabetza mantenduko du, eta plaza horretako oinarrizko eginkizunak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipen honek ez dakar, inola ere, Lehen Mailako Atentzioko unitate-buruaren funtzioak edo ordainsariak finkatzerik, berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da funtzio horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Funtzio horiek betetzen dituen bitartean, ardura bereziaren osagarria kobratuko du Javier Marco de Juana jaunak. Osagarri hori 3/1987 Errege Lege Dekretuak arautzen duen berariazko osagarrian txertatuta dago; zenbatekoa eta ezaugarriak, berriz, uztailaren 23ko 195/1996 Dekretuaren I. eranskinean daude ezarrita.

Bosgarrena.– Ebazpen honek irailaren 17tik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena:- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Getxo, 2012ko uztailaren 24a.

Uribeko Eskualdeko zuzendari gerentea,
M.ª LUZ MARQUÉS GONZÁLEZ.